

ARAUAK ANTOLATZEN

PLANGITZA :

HELBURUAK
Ikastolako hainbat esparruetako arauak zehaztea. (patioa, frontoia, pasiloak/komunak, jantokia) Gela bakoitzeko arauak zehazteko prozedura. Arauak adostu eta barneratzea , betetzea bultzatuz.
METODOLOGIA
-Hasieran azalpena talde handian. (10´) -Zikloka arauak zehaztu (esparru ezberdinak) (45´) -Komunean ipini eta adostu arau horiek (15´) -Gela bakoitzean ikasleekin gelako arauak erabaki. (Ondoren gelan leku egokian ipini eta aldizka joan aztertzen ikasleekin). (10 egun?) - Esparru ezberdinetako arauak, ikasleekin landu eta beraien laguntzaz, modu ikusgarrian esparru horietan kokatu. (ziklo bakoitzak esparru batekoa ipiniko du) 10 egun?
MATERIALA
- Irakasle guztientzat eskema orokorra. - Idatzizko proposamena esparru ezberdinetako arauaz.

- 1) **Geletako Arauak:** Ziklo bakoitzak gelako arauaz hitz egingo du. Ondoren gela bakoitzean, tutoreak ikasleekin arauen garrantziaz hitz egingo du. Eta gela bakoitzak bere premiazko Arauak jarriko ditu hormairudi batean ikasleekin eztabaidatu ondoren. Bakoitzak bere gelan.
- 2) **Esparruetako arauak :** Tutoretza Batzordeak lau zikloen artean banatuko ditu lau esparrutako Arauak. Ziklo bakoitzak gehitu ,kendu edo aldatzeko.

- H.H.- Komuna
- H. Z. – Pasabidea
- E. Z. – Jantokia
- G. Z. - Jolastokia

- 2.1) Ziklo bakoitzak (irakasleen artean) 5 Arau aukeratuko ditu esparru bakoitzetik.

Ondoren gela bakoitzean Arauen funtzioen helburuaz hitzegingo da,eta egokitutako 5 Arauak aztertuko dira :

- Beraien iritsia araei buruz.
- Zertarako ipini diren.
- Zer babesten duten.
- Zer errazten duten.

- 2.2) Azkenik, zikloko irakasleek antolatuko dute (ikasleen laguntzaz) nola jarri Arau hoiek dagozkien esparruan.

Azken lan hau egiten den bitartean zikloetako ikasleek beraien esparruko Arauak azalduko dituzte beste zikloetako ikasleen aurrean.(Anexo 3)

❖ PASABIDEKO ARAUAK.-

- Sarrera eta irteerak dagozkigun lekuetatik egingo ditugu, eta txikiekin kontuz ibiliko gara.
- Lasai eta ahopeka sartuko gara ikastolara, eta era berean aterako gara ikastolatik.
- Gela aldaketetan, besteak lanean daudela kontuan izango dugu, beraz, isilik eta entretenitu gabe egingo ditugu.
- Baloia eta jostailuak eskuan eraman.
- Motxilak bizkarrean eramango ditugu, eta ez eskaileretan bultzaka.
- Igo eta jesitsi eskubitik

❖ JANTOKIKO ARAUAK.-

- Jan aurretik eta gero eskuak garbituko ditugu.
- Jantokira ilaran sartuko gara eta gure txanda itxarongo dugu bultzatu eta oihukatu gabe.
- Gure lekutik altxatu gabe eta lasai jango dugu.
- Modu egokian hitz egingo dugu eta gauzak behar diren moduan eskatuko ditugu. (On egin, mesedez, eskerrik asko)
- Modu egokian bazkalduko dugu, janariarekin jolastu gabe. Tresneria era onean erabiliko dugu.
- Bazkaltzeko behar den denbora erabiliko dugu, gehiegi luzatu gabe.
- Begiralei beti euskeraz zuzenduko diegu.

❖ JOLASTOKIKO ARAUAK.-

- Patiotik kanpo objekturen bat ateratzen bada edo umeren batek mina hartzen badu irakasleari esan eta bera arduratuko da.
- Jolasguneko txandak errespetatuko ditugu.
- Euria egiten duen egunetan kiroldegian eta portxeetan jolastuko gara eta beraz, baloiak, sokak eta pilotak gelan utziko ditugu.

- Belargunea errespetatuko dugu eta patioan gaudenean pixa komunean egingo dugu.
- Behin gelatik atera ondoren ezin da berriro gelara itzuli.
- Zaborra zakarrontzira bota behar dugu.
- Kolinpioak era egokian erabiliko ditugu.
- Errespetatu gimnasia egiten ari direnei

❖ **KOMUNEKO ARAUAK.-**

- Guri dagokigun komuna erabiliko dugu.
- Kideak errespetatuko ditugu.
- Komunak garbia mantentzen ditugu.
- Komuna erabili ondoren eskuak garbituko ditugu.
- Iturriak, paperak, xaboi ontziak etab.era egokian erabiliko ditugu.

Honen hurrengo lana honako hau izan da :
Ikastola mailan Arau bat aukeratu eta honen plangintza .

ARAUA : “Lasi eta oihukatu gabe ikastolara sartu eta ikastolatik era berean aterako gara “.

Honen antolaketa :

- 1.- Geletan nola egingo dugun sarrerak eta irteerak gogorazi klasean.
- 2.- Patiora irtetzean : - H.H.ho irakaslea edo momentu horretan dagoen irakaslea arduratuko da bere taldea patiora jeisten.
-L.H.ko irakasleek gelako atetik zainduko dituzte beraien ikasleak.
- 3.- Goizeko eta arratsaldeko sarreretan,hau da,9etan eta 3retan zuzendaritzako bat jarriko da sarrerako atean.
- 4.-Patioko zaintzaleen ardurak :
 - Puntualitatea.
 - Patiotik sartzean :
 - Irakasle batzuk sarrerako atean jarriko dira.(1)
 - Besteek barruko pasabidea zainduko dute.(2)
 - Hirugarren batzuk denak sartzeaz arduratuko dira.(3)

Plangintza hau guk, aukeratutako Araua aurrera eramateko modu bat da, besterik ez.

H.H.ko patio orduetan, laugarrenak, portxe txikiko atea zainduko du.(4)

- Goizeko eta arratsaldeko sarrerak patioko arduradunek zainduko dituzte.